

XABIER GEREÑO ARRARTE:
EUSKALTZALEA, EKINTZAILEA, ADISKIDEA.
IN MEMORIAM

Xabier Gereñoren anaia-arrebak, seme biok, euskaltzainok, adiskideok, agur guztioi. Oraingoan ere gertatu zait lagun eta adiskide izandako euskaltzain baten hilberri-txostena prestatu beharra. Eta horrek aukera eskaini dit, harekin eta haren inguruan bizi izandako pasadizo eta oroitzapen gazi-gozoek gogoratzeko, ahanzturaren tuneletik aterata.

Xabier Gereño Arrarte, Bilbon 1924ko abuztuaren 12an jaioa, iazko apirilaren 8an zendu zen, 87 urte betetzeko hiru hilabete falta zuenean. Jada urtetan aurreratua zen eta, alde horretatik, haren heriotzak ez gintuen erabateko ustekabeen harrapatu, baina halere, zertarako uka, berriak min eman zigun, geure bizitzatik norbait baliotsu galdu genuelako nahigabeaz.

Xabier txikitan Bilbon bizi eta Bizkaiko hiriburuan egin zituen lehen ikasketak. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz, haren aita – nik neuk nerabegarotik ezagutzeko ohorea izan nuen abertzale eta euskaltzale fina bera – lantokitik kanporatu zuten eta bere etxeko guztiekin Kanarietara joan behar izan zuten, Las Palmasera, bizimodu bila. Xabierrek bertako Merkataritza eskolan egin zituen goi mailako ikasketak. Aitak ez zekien euskaraz ongi, baina seme-alaba guztiek amarengandik jaso zuten gure herriko hizkuntza. Kanarietako ez zen, ekonomia aldetik, lan txarra, baina aita laster konturatu zen uharte urrun haiek, bertako klima eta bizimodu onak gorabehera, ez zirela euskal familia bat hazi eta hezteko leku aproposenak. Horregatik Bilbora itzuli ziren. Aitak, bere aurretikoekin, ez zuen Bilbon lanik aurkitu eta, etxekoak bertan utzita, bera Cadizera joan zen lanera, hamabostean behin edo, etxera itzuliz. Xabierrek Bilbon Merkataritzako Intendente ikasketak burutu zituen, bai eta, gainera, solfeo eta piano ikasketak ere.

Behin, aita Cadiztik etxera itzulia zen asteburu horietako batean, ohiturarik ezagatik edo, Gereño zaharrak bere emazteari zerbait esan omen zion... erdaraz! Bai eta laster damutu ere, semeetako batek hura entzutean jarri zuen aurpegia ikusi eta amari esan ziona entzutean: “-Ama, aitak erdaraz egin du. Ez daki euskaraz ala?”. Handik aurrera, hurrekin zegoenean, esaldi labur eta errazak baziren ere, beti euskaraz mintzatu zen. Andreari esan beharreko gauza serio edota zailagoak, ezinbestean erdarazkoak, behin haurrak oheratu eta gero esaten zizkion bakarrik gelditzen zirenean.

Orduko buruzagi euskaldun eta abertzale askorentzat seme-alabei gure hizkuntza nazionala irakastea hain “beharrezko” eta “nahitaezkoa” ez zen garai hartan, bereziki azpimarratzekoa da Gereñotarren etxeko giro euskaltzalea. Hortik datorke, noski, Bizkaian esan ohi den bezala, “umearen zentzuna, etxean entzuna”. Eta Gereñotar guztiek beren eginetan ederki erakutsi dute gurasoengandik lezioa ongi ikasi zutela.

Geroago, Xabierrek *La Aeronáutica S.A.* izeneko enpresan lanean hasi eta hor 33 urtetan zehar kontularitzaren ardura eraman zuen bere gain. Bertako lankide batekin, Manuel Landaluze-rekin, txistua jotzen ikasi zuen eta dantza taldeen ekintzak eta bidaiak antolatzeari ekin zion. 1955ean Txistularien Elkarteak berriz indarra hartu zuenean, hor buru belarri aritu zen lanean. 1957an Txistularien Udal Akademiaren sorrera bultzatu zuen, Bilbon, eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteko sortzaile izan genuen. Era berean, San Anton orfeoia sortu zuen taldeko partaidea ere izan zen. *Dantzari* deritzon aldizkaria ere berak sortu zuen.

1950eko hamarkadan Biarritzeko eta Baionako udalekin batera, hainbat jaialdi antolatu zuen Ipar Euskal Herrian ere.

Ni neu, egia, esan, ez naiz ondo gogoratzen lehen aldiz non ikusi eta nola ezagutu nuen Xabier Gereño. Baina, oro har, haren bizitzaren ibilbidea gogoan izanda, egingo nuke hamabost bat urte inguru nituenean, hirurogeiko hamarkaden hasieran. Gaztetxo orduan ni! Halere, Frankismoaren garai beltza zen arren, Xabier Gereñok eta bere anaia-arrebek, iluntasunean argi bat nolabait egin nahirik, kultura ekitaldiren bat antolatzen ziharduten jada, diktaduraren kartzelatik irtenbide bat zulatzen saiatzen denaren adorearekin. Ordukoxea da gure elkar-ezagutza.

Xabier Gereño Begoña Bilbao-rekin ezkondu zen, euskalgintzan beti lagun eta adore emaile izan zuena. Elkarrekin bi seme hazi eta hezi zituzten: Jon eta Iñaki, biak euskaldun zintzoak.

Bilboko eta Euskal Herri osoko folklore, jaialdi, kultura, euskararen batasunaz eta eguneroko albiste jakingarriez artikulu asko idatzi zituen *Txistulari*, *Karmel*, *Zeruko Argia*, *Dantzari*, *Anaitasuna*, *Aizu!*, *Bilbao* eta *El Mundo* agerkarietan, adibidez. Hitzaldietan ere parte hartzen zuen. Esaterako, Deustuko Unibertsitateak 1971an antolaturiko Nazioarteko Euskal Antropologia Asteko jardunaldietan parte hartu zuen, K. Mitxelena, P. Altuna, J.M. Mokoroa eta beste batzuen artean. Berak euskara batuak zer nolako abantaila ekonomikoak ekarriko zizkion euskal testugintzari erakutsi zuen bereziki, euskalkiz egindako edizio ugari bezain garestien gaintik, edizio batu handiago eta merkeagoak bideratzean.

Urte batzuk lehenago, 1965ean Ermuko bileran izan zen, Euskal Idazleen Elkartearen sortzeko ekitaldian.

Garai hartako irratiek (Herri-irratiek bereziki) euskarari uzten zioten zirrikituek baliatuz, Xabier Gereñok euskal kulturari buruzko lanak irratiratzen zituen, Jose Luis Bengoa Zubizarreta kazetari euskaltzale eta musikazalearen laguntzaz.

Cinsa liburu eta disko argitaletxearen zuzendaria ere izan zen ere, eta horren bidez 42 disko plazaratu zituen, gehienak euskal kantekin, eta batzuk haurrentzako euskal ipuinekin ere. Gogoan dut, horietako batean, Txano Gorritxorenean Gabriel Arestiri eskatu ziola laguntza, bere boza eman zezan. Gabrielelek “Baina nik oso boz txarra dut” erantzun zigun, eta “Horrexegatik, otsoarena egiteko, hain zuzen!” azaldu zitzaion. Disko hura arrakastatsua izan zen, Xabierren ustez, Gabrielen boz beldurgarri hura Otsoaren pertsonaiarako oso egokia izan zelako, hurrei ipuinarekin beldurra sentitzea gustatzen zitzaion eta. *Cinsa* etxeak, halaber, euskal liburu batzuk eman zituen argitara

G. Arestik bihotzez miresten zuen Xabier eta berorren anaia-arrebak. Xabierri “inurria” zeritzon, txikia baina beti lanean, edozein oztopo, ekinaren ekinaz, bidetik kentzeko ahalmenaz.

1963. urtean Joan XXIII aita santuak *Pacem in Terris* entziklika argitaratu zuenean, Estatu propiorik gabeko herrien hizkuntza eta kultura eskubideen arazoa atera zen plazara. Handik bi urtetara, 1965eko urtarrilaren leian Jose Antonio Retolazak eta Don Klaudio apaizek San Antongo elizan meza euskaraz eskaintzea erabaki zuten. Horren inguruan, eta Don Klaudioaren sermoi ederrak bezain ausartak entzutearren, Bilboko eta inguruetakoko jende asko biltzen zen igandero, meza ondoan zazpi kaleetatik euskal giro ederra sortuz. Hortxe biltzen ziren adibidez, Gereñotarrak, G. Aresti, Alfonso Irigoien, Sabin Zubiri, Boni txistularia, eta beste euskaltzale eta abertzale asko ere. Gaurko begiokin begiraturik, euskarazko meza bat Bilbon antolatzea huskeriatzat jo daiteke, baina katakunba giro hartan bizi beharra izan genuenok ekintza hari egiazko aurrerapauso generitzaion, dudarik gabe.

1968. urtean, Xabier Gereño espetxeratu zuten.: Julen Lekuonaren "Ez, ez dut nahi" kantak behar zuen baimena ez zuen eskuratu, eta X. Gereñok, argitaratzaileak, delitu larri horregatik 15 egun eman zituen kartzelan. Hau izan zen bere bizitzan atxilotu zuten bigarren aldia hogeitun urte lehenago ere giltzaperatua izan baitzen, 1948an, orduan euskara irakasteko akademia sortu nahi izan zuelako.

Gertatu hauen argitan, ez dute oroimen onik erakusten denbora hartan Francok eta haren erregimenak euskal hizkuntza eta kultura ez zituztela

zapaltzen eta haren bizialdi eta egintzez panegiriko goxoak aldizka predikatzen diguten azken orduko istoriolari errebisionistek.

Egia da orduko aurrerazale eta ezkertiar batzuek folklorezalekeria hutsa zeritzotela herri tradizioko musika eta dantza ekitaldi horietan jarduteari, baina garai hartako debeku-giroan, haiek noraezekoak izan ziren euskal giro erabat zapaldua birpizteko, eta frankisten erasoek berek ederki adierazten zuten “folklorekeria” horien garrantzia.

1965. urtean euskal abesti berrien txapelketa eratu zuen Bilbon, baina agintariak debekatu egin zuten. Txapelketa horretan Benito Lertxundik eta Lourdes Iriondok hartu zuten parte, besteak beste.

Xabier Gereñok aparteko begi zorrotza izaten zuen gure hizkuntzaren funtsezko premiez konturatzeko. Horregatik, gaztelaniaz ongi estaliriko arlo batzuk euskaraz gutxi landurik edo oraindik erabat landu gabetik zeudela oharturik, zeregin horretan saiatu zen. Euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez zutenentzat, testu eta irakurgai errazak prestatzen zituen, horien bitartez alfabetatu gabeko euskaldun zaharrek eta esperientzia laburreko berriek lehen pausoak eman zituzten. Izan ere, batzuen eginkizunen dibisa “nahi dudana egitea” baldin zen, Xabierrek oso bestelako iritzia zuen: jendeari, “eskatzen ziona” ematea, hasi-masietatik abiatuz. Alde horretatik, esan genezake, gaurko idazle handien obrak irakurtzeko zaletasuna, neurri handiz, Xabier Gereñok idatziriko irakurgai erraz haietan oinarritu zela, jende euskalduna irakurtzera bultzatzen jakin zuelako.

Eta liburu horiek, Ramon Saizarbitoria gure eleberrigile handiak berak inoiz seinatu duenez, arrakasta eta estima handiz jasotzen zituzten irakurle hasi berriek. Euskaldun berrien premiak ase nahirik halaber, espainolez, frantsesez eta ingelesez ere euskara ikasteko metodoak ere eman zituen argitara, *Metodo fácil para aprender euskera básico* (1983) adibidez, oinarrizko lexiko eta hiztegi praktikoak ahanzi gabe.

Eleberri eta teatro lan ugari idatzi zituen Xabierrek, gaurko munduan girotuak: polizi gaiak, espioitza eta era horretako argudioak. Pertsonaia historikoen biografiak ere bai. Nobela beltza ere bereziki landu zuen. Horien artean honako hauek aipa nitzake, geroagoko zerrenda osoagoaren aurrekari gisa:

- Arantza artean
- Nora naramazue
- Kikili eta Kokolo Txile-n
- Kikili eta Kokolo espioitzan

- Kuwait-en harrapatuak
- Gerra ezkutua
- Drogen munduan
- Antonello Euskal Herrian
- Napoleon
- Jomeini-ren paradisuan
- Afrika beltzean
- Zumalakarregi, euskal buruzagi
- Euskal espioiak nazien aurka
- Jurgi kapitaina Hong-Kong-en
- Andre Catalina eta Arabiako emir-a
- Gadafi hiltzeko aginduarazi nobela laburra

Guztira 70 obra baino gehiago eman zituen argitara.

Azpimarratzekoak dira, ene ustez, bere nobeletan sorturiko pertsonaiak eta protagonistak, hurrengo liburuetan ere errepikatuak, *Jurgi kapitaina*, adibidez, orduan jaio berria zen ene seme nagusiaren izenaz baliatuz halaxe bataiatua, edo *Antonello*, *Kikili eta Kololo* umorezko pertsonaiak, bai eta, albisteen arabera, egunerokotasunean txertaturiko pertsonaia eta leku errealak erabiltzea: *Khomeini*, *Gadafi*, *Drogen mundua*, *Kuwait...*

Behin bere emaztea 1990. urtean hil eta gero, hurrengo urtean Bilboko *Reina de la Paz* adinekoren egoitzara joan zen bizitzera. Hor kultura eta animazio batzordeko arduraduna izan zen hasiera-hasieratik, eta maiz adiskideoi eskatzen zigun hara hitzaldiak ematera joan gintezen. Behin, bi urte lehenago emandako hitzaldia berriz emateko eskatu zidan, erleei buruzkoa, hain zuzen, eta nik erantzun nion ez zitzaidala egoki iruditzen gai berbera errepikatzea. Honela erantzun zidan, etsipenez: “Ai Xabier! hau zaharrentzako erresidentzia da, eta hemengoak ia urtero aldatzen dira, asko eta asko beste mundura joanda!”. Bestalde, bertan ostaturiko pertsona ia guztiak erdaldunak ziren, eta Xabierrek haien eskariei men eginez, zenbait idazlan erdaraz ere argitaratu zuen: *Carta fatal* espioitza-nobela (1994), *Residencia Rochester* (1994) eta *Huyendo del pasado* (1995), adibidez.

Euskararen alde egindako lan ugariengatik Euskaltzaindiak 1965eko irailaren 24an izendatua zuen euskaltzain urgazle. Gainera. 1980tik 1988 arte Euskaltzaindian lan egin zuen, erakunde honetako kontabilitatea euskaraz antolatuz. Haren bizitzako pasarte hau, ordea, J.L. Lizundia euskaltzainak azalduko du xehekiago.

Euskal Irrati Telebista 1983 aldean antolatu zenean, Xabier Gereño haren lehen Administrazio-Kontseiluko kide izan zen. Urte batzuk geroago, 1998ko apirilaren 24an euskaltzain ohorezko izendatu zuen.

2011ko apirilaren 4an hil zen, Bilbon, eta azken ordura arte euskal hizkuntza eta kulturaren alde ibili zen, neka ezinik. Haren etengabeko lanari esker ereindakoa, ordea, hor segitzen du, fruitu ugari ematen. Eskaini digun lanik onena, ordea, ene ustez behintzat, haren izpiritu geldiezina izan da, edozer, ezina badirudi ere, ekinaren ekinaz lor daitekeelako esperantza.

Eta amaitzeko, dolu-hitzik ez, poz eta harrotasunezkoak baino.

Haren seme Jon eta Iñaki, haren anaia Joseba eta Sabin, haren arreba Miren Eli eta Eztibalitz: pozik eta harro egon zaitezket, dolu-giroan ere, hain aita on eta zintzo, hain anaia eta neba prestu, euskaltzale eta imitagarria izan duzuelako. Eskerrik asko.

Xabier Kintana Urtiaga
2012/1/26